



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko otsailaren 6an

9 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Jabeldura, Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua, Tuterako El Culebrete zabor-tegian haragi irinak biltegiatzeari buruzkoa (3. or.).
- Jabeldura, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Bardeako tiro poligonoa eraistea eskatzeko onetsi zen erabakiaren ondorioz Nafarroako Gobernuak zer egin duen jakiteko (3. or.).
- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Bardearen erabilerari buruzko erreferendum bat egiteko tramiteak has ditzan (5. or.).
- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, 1996ko urtarrilaren 15ean indarkeriari buruz sinatutako Akordioak balio osoa duela adierazten da (6. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, tributuei buruzko telefono-deiak hartzeko zerbitzua Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langileei itzul dakiela eskatzen da (6. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legea egokitzeko plan bat egin dezan (7. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oihan Plana betearazteko neurriak har ditzan (9. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da musikako goi mailako ikasketak arautzeko foru lege proiektu bat egin dezan (10. or.).
- Mozioa, Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoak ingurumenean duen eraginari buruzko azterlan bat egin dezan (12. or.).

- Mozioa, Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Bardeako tiro poligonoaren erabilera militarren eta inguruetan bizi diren biztanleen osasunaren arteko erlazioa iker eta azter dadila eskatzen da (13. or.).
- Mozioa, Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Errege Bardearen jabegoa berreskuratzea erabakitzen da (14. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebroko Ur Konfederazioak sustatutako “Pirinioko Itsasoa Garatzeko Estrategia” esku har dezan (16. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoaren inguruko eremuan gertatutako minbizi kasuei buruzko epidemiologia azterlan bat egin dezan (18. or.).
- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, inmigrazio gaitan PPko Gobernua aplikatzen ari den politikaren zeharo aurka dagoela adierazten du Nafarroako Parlamentuak (19. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foruzaingoen antolaketa eta eginkizunei buruzko planaren betetze maila azter dezan (20. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoaren inguruko herrietako minbizi kasuen kopuruari buruzko azterlanak egin ditzan (22. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiiformeari buruzko informazio zentro bat sor dezan (23. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero-indarkeriaren aurkako plan integral bat presta dezan (24. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza sistema ezar dezan (25. or.).
- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi eroen gaitza deitutakoari buruz kontsumitzaileei informazioa emateko kanpaina bat abian jar dezan (26. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru legea alda dezan (27. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ardien “scrapie” izeneko gaitzari buruzko informazio kanpaina bat egin dezan. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean izapidatzea (29. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruña-Jaka-Huesca autobien trazadura Irunberrin barna egin dadin. Herrilan eta Azpiegiturak Batzordean izapidatzea (29. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Larrako natur erreserban eskian aritzeari buruzko azterlanak egin ditzan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean izapidatzea (29. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da batzorde bat era dezan, hezkuntza etapetan hainbat ikasgaiaren irakaskuntza aztertze. Hezkuntza eta Kultura Batzordean izapidatzea (30. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexua dela-eta lanean diskriminaziorik egiten ez dela ikuskatzeko programa baten garapena susta dezan. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean izapidatzea (30. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza sisteman etorkinen beharrei erantzuna emateko arau-proiektu bat aurkez dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordean izapidatzea (30. or.).
- Irakeko herriaren egoerari buruzko adierazpen politikoa. Eledunen Batzarrak onetsia (31. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak eta Parlamentuko Informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoa 2001eko urtarrilaren 29an (32. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2000ko abenduaren 31n (33. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Tuterako El Culebrete zabortegian haragi irinak biltegitratzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Tuterako El Culebrete zabortegian haragi irinak biltegitratzeari buruzko jabeldura aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN EDUKIA

Parlamentuko Askotariko Taldeko Milagros Rubio Salvatierrak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari:

Prentsako artikulua baten bidez jakin dugunez, Nafarroako Gobernuak eta Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitateak erabaki dute El Culebreteko zabortegian uztea Andosillako enpresek sortu eta biltegitratutako haragi-irinak.

Behi eroen auziarekin zerikusia duen gai larri batez ari gara, alegia, osasun publikorako arrisku handiko gai batez. Hori dela-eta, ondoko jabeldura aurkeztu dut, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran azal dezan zer irizpide baliatu dituen erabakitzeko aipatu haragi-irinak El Culebreteko zabortegian utzi behar direla, ezagutzera eman ditzan hori egiteak osasunerako inolako arriskurik ez dakarrela ziurtatzen duten iritzi zientifikoak eta nolakoa eta noiz artekoa izan den biltegitratze hori, bai eta irinak nola eta noiz deuseztatuko dituen ere.

Iruñean, 2000ko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Jabeldura, Bardeako tiro poligonoa eraistea eskatzeko onetsi zen erabakiaren ondorioz Nafarroako Gobernuak zer egin duen jakiteko

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Bardeako tiro poligonoa eraistea eskatzeko onetsi zen erabakiaren ondorioz Nafarroako Gobernuak zer egin duen jakiteko jabeldura aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, jabelduraren

biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán, Biltzarreko Erregelamenduko 176. artikularen babesean, hurrengo jabeldura aurkezten du Parlamentuko Mahaian eta lehenbailehen tramitatzea eskatzen:

Aurrekariak

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 22an egin Osoko Bilkuran, hurrengo erabakia onetsi zuen talde sozialistak aurkeztuta; hauxe zioen hitzez hitz:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, sei hilabeteko epean beharrezko ekintza eta izapidaketak egin ditzan Nafarroa-Estatua batzorde mistoa sortzeko, eta Espainiako Estatuarekin negoziaketak has ditzan, Errege Bardeako lurraldearen jabetza soila eta bere gain dituen jabetza eskubide oro doan lagatzeko Foru Komunitateari, betiere, Bardeako gozamina dutenen eskubide tradizionalak zainduz. Nafarroa ordezkatzeko dute batzorde misto horretan, Gobernuaren ordezkariak, Parlamentuko Taldeenak eta Errege Bardeako Komunitatearenak.

Nafarroako Parlamentuak, halaber, Nafarroako herritarren nahiaren ordezkari nagusia izaki, gaitzetsi egiten du Bardea tiro zelai gisa erabiltzea, 2001eko ekainean egungo kontratua amaitzen denetik aitzina. Ondorioz, Espainiako Gobernuaren aurrean, Bardeako lurralde zati hori tiro zelai gisa erabiltzeko lagapen-kontratua berritzearen aurkako jarrerari eusteko konpromisoa hartzen du.

Geroztik, Foru Araubide Batzordeak 2000ko abenduaren 14an egin bilkuran, Nafarroako Gobernuako Lehendakariak esan zuen –talde sozialistak eskatuta agertu zen Lehendakaria– Gobernua prest zegoela 2000ko ekainaren 22ko Erabakian aipaturiko batzordea sortzeko, eta Nafarroako Gobernuak berehala sortuko zuela batzorde hori. Parlamentuko taldeak harrituta gelditu ziren; izan ere, Nafarroako Gobernuak Batzordeko kide izateko hautatutako taldeek –PSN eta CDN– ez baitzuten Gobernuaren erabakiaren berri.

Halaber, 2001ko urtarrilaren 8an, astelehena-ekin, –urtarrilaren 6an bertako egunkarietan agertutako berri baten ondotik– eledun honek Gobernuako lehendakariordearen jakinarazpen bat jaso zuen; 2000ko abenduaren 27ko data zuen eta, harekin batera, hau heldu zen: “Nafarroako Gobernuak urriaren 23an hartutako erabakiaren fotokopia; erabaki horren bidez Bardeako Tiro Poligonoari buruzko Ordezkarien Koordinazio Batzordea sortu da. Batzorde horren eratzera gonbidatuta gelditzen zara (honekin batera doaz bi agirien kopiak)”.

Bestalde, Defentsa Ministroak aipatu du, orain gutxi Senatuaren aitzinean eginiko agerpen batean, Nafarroan badela “Nafarroako Gobernuaren lan taldea” Bardeako Tiro Poligonoaren karietarat sortua.

Jabelduraren testua

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, aurrekari horiek ikusita, jabeldura hau luzatzen dio Nafarroako Gobernuari:

1.) Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 22an premiatu zuenetik, zer kudeaketa eta izapidaketa egin ditu Nafarroako Gobernuak?

2.) Jasotako komunikazioetan –jabeldurarekin batera doaz eranskin gisa– aipatzen den batzordea al da Nafarroak batzorde mistoan –Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 22ko Erabakian aipatu batzorde mistoan– izanen duen ordezkari?, edo “Bardeako Tiro Poligonoari buruzko Ordezkarien Koordinazio Batzordea” besterik ez da?

3.) “Bardeako Tiro Poligonoari buruzko Ordezkarien Koordinazio Batzordea” izenekoa al da Defentsa ministroak Senatuan –2000ko abenduaren 20an egin agerraldian– aipatu zuen “Nafarroako Gobernuaren lan taldea”?

4.) Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak nazioko Gobernuaren iritzia Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 22an Nafarroa-Estatua batzorde mistoa sortzeko hartutako erabakiari buruz? Eta ezagutzen badu, zein da?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 10ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Bardearen erabilerari buruzko erreferendum bat egiteko tramiteak has ditzan

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Bardearen erabilerari buruzko erreferendum bat egiteko tramiteak has ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo osoko bilkuran eztabaida eta bozka dadin:

Zioen azalpena

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak jabeldura bat aurkeztu zion Nafarroako Gobernu-ko Lehendakariari, hurrengo Osoko Bilkuran azal zezan nola jardun behar zuen foru gobernuak Errege Bardea nazioaren defentsarako intereseko eremu deklaratzeko Estatuko Gobernuak hartutako erabakia dela eta.

Joan den abenduaren 21eko Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernu-ko Lehendakari Miguel Sanz jauna Biltzarrean agertu zen jabeldura horri erantzuteko.

Gure taldeak uste du Gobernu-ko Lehendakariaren erantzunak ez duela errespetatzen Nafarroako gizarteko gehiengoaren borondatea –hain zuzen ere, Defentsa Ministerioarekin beste kontratu bat sinatzearen aurkakoa–, ez eta Parlamentu honek hainbat eta hainbat erabakitan adierazitakoa ere; izan ere, Miguel Sanz jaunak jarduketa plan bat aurreratu zuen, zeinaren helburua zen beste kontratu bat negoziatzea Defentsa Ministerioarekin, Nafarroako Parlamentuaren gehiengoak adierazitakoaz bestera.

Bestalde, uste dugu une hauetan oso garrantzitsua dela Defentsa Ministerioarekin beste hitzarmen bat sinatzearen aurka dagoen Nafarroako gizarteko gehiengoaren iritzia bideratzea, Nafarroako Parlamentuak deituriko mobilizazio instituzional handi baten bidez.

Horri dagokionez, nafarrek Errege Bardeako lurraldeari eman behar zaion erabilera erabaki dezaten, gure ustez Nafarroako gizarteari bere borondatea agertzera emateko mekanismoak eskaini behar zaizkio. Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Mobilizazio instituzional baterako dei egitea, Biltzarreko gehiengoak eta Nafarroako gizarteak Defentsa Ministerioarekin Errege Bardearen lurraldea 2001eko ekainaren 9tik aurrera erabiltzeko beste hitzarmen bat sinatzea arbuizatzen duela adierazteko bidea izan dadin; mobilizazio horren ezaugarriak eta data Parlamentuko Mahaiak erabakiko du, Eledunen Batzarrari entzun ondoren.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzea behar diren izapideak egin ditzan Nafarroa osoan erreferendum bat egiteko, nafarrek erabaki dezaten Errege Bardeari eman nahi dioten erabilera.

Iruñean, 2000ko abenduaren 21ean

Eleduna: Joxe Pernando Barrrena Arza

Mozioa. Horren bidez, 1996ko urtarrilaren 15ean indarkeriari buruz sinatutako Akordioak balio osoa duela adierazten da

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, 1996ko urtarrilaren 15ean indarkeriari buruz sinatutako Akordioak balio osoa duela adierazten da".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak mozio bat aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Zioen azalpena

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra alderdiak badaki une hauetan herritarren arreta bereganatzen duen eztabaida politikoa terrorismoarekiko azterketa eta erantzun politikoa dela. Talde honen ustez, beharrezkoa da berreskuratzea oinarritzkoaren gainean beste batzuetan lortutako batasun demokratikoaren bultzada. Hori dela eta, 1996an sinatutako Indarkeriari buruzko Akordioak, gure ustez, gaur egun ere indarra du printzipioetan, Parlamentuko talde guztiek, Euskal Herritarrok izan ezik, izenpetu izanaren bertutearekin batera. Hori horrela, akordio hura berresteak egungo egoerari erantzuten dioela eta terrorismoaren inguruko batasun demokratikoa sendotuko duela pentsatzen dugu.

Akordioaren proposamena

Nafarroako Gorteek adierazten dute 1996ko urtarrilaren 15ean izenpeturiko Indarkeriari buruzko Akordioak indar osoa duela.

Iruñean, 2000ko abenduaren 27an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, tributuei buruzko telefono-deiak hartzeko zerbitzua Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langileei itzul dakiela eskatzen da

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, tributuei buruzko telefono-deiak hartzeko zerbitzua Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langileei itzul dakiela eskatzen da".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta

foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan eta hurrengoez baliatuz, mozio bat aurkeztu du, Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordean eztabaida eta ones dadin. Horren

bidez proposatzen da tributuen inguruko telefono deiak hartzeko zerbitzua Nafarroako Gobernuko Ekonomi eta Ogasun Departamentuko funtzionarioek bete dezatela eskatzea.

Zioen azalpena

Tributuen inguruko telefono deiak hartzeko zerbitzua, 2001eko urtarrilaren 1era arte Ekonomi eta Ogasun Departamentuko funtzionarioen esku egon dena, aurten pribatizatu egin da eta Foru Komunitatetik kanpoko enpresa bati adjudikatu zaio, Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak argudiatu duenez, zerbitzuaren "eraginkortasuna eta koordinazioa hobek" izanen direlakoan.

Parlamentuko Talde Sozialistaren ustez, tributuen inguruko telefono deiak hartzeko zerbitzua enpresa pribatu bati adjudikatzeko arrazoirik ez

dago, zerbitzu hori Nafarroako Tributuen Ogasuna erakunde autonomoko langileek, behar adina eta prestakuntza tekniko egokiarekin, egin behar dutela pentsatzen dugulako, zerbitzu ona ematen dela eta erabilitako datuak isilpean gordetzen direla bermatzeko.

Hori guztia dela eta, honako hau proposatzen da, onetsia izan dadin:

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du tributuen inguruko telefono deiak hartzeko zerbitzua Administrazioari atxikitako langileek bete dezatela, lehen bezala.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 5ean

Eleduna, Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legea egokitze plan bat egin dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legea egokitze plan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztatbaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztatbaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu

du, Gizarte Gaietarako Batzordean eztatbaida dadin.

Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak aurrerapauso handia ekarri zuen arkitektura oztopoak kentzeari buruz. Lege horretako hainbat artikulutan ondoko helburua ezartzen da: eraikinik gabeko gunetan, urbanizazioaren osagaietan eta hiri altzarrietan eginiko obren diseinua eta obra bera kontrolatzea.

Halatan, legeak ezarritakoari jarraikiz, urbanizazio proiektuetan aintzat hartuko dira honako hauek: oinezkoentzako zoladurak, saneamenduko zein ur hornikuntzako sareetako, energia elektriko hornikuntzako, argiteria publikoko, telefonia sareko eta oinezkoak ibiltzeko oztopo izan daitezkeen hornikuntza zein sareetako lur gaineko osagaiak.

Hiri altzariak direla-eta, foru legeak dio ezen aintzat hartuko direla, besteak beste, eskudelak, eskubandak zein laguntzeko eta babesteko bestelako osagaiak, semaforoak, zutoinak, hagak, seinale bertikalak, kioskoak, telefono-kabinak, iturriak eta komun publikoak.

Arkitekturako eta eraikuntzako osagai, zerbitzu eta eremuetan aintzat hartuko dira ondokoak, baldin eta foru lege horretan ezarritakoa bete behar

badute horien diseinu eta exekuzioak: eraikinetako sarbideak, eraikin multzo bat zein horiei atxikitako zerbitzuak elkartzen dituen oinezkoentzako pasabideak, erabilera publikoko eremuetako egoitzak eta guneak, bizilagunek erabiltzeko diren etxebizitzaren zerbitzuko guneak, garaje plazak eta abar.

Foru lege horretako 7. artikulua haxe dio: "Foru lege honetako xedapenak Nafarroako Foru Komunitatean nahitaez bete beharko dira"; artikuluko 2. idatz-zatiak, berriz, haxe: "Bidaiariak herrien artean garraiatzeko zerbitzu publikoak, baldin eta Foru Administrazioak baimendu eta esleitu beharrekoa bada, foru lege honetan xedatutakoa eta berau garatzeko erregelamenduak bete beharko ditu, nahiz eta ibilbideak Foru Komunitatetik kanpo egin."

Foru legea ona da, baina Nafarroako Gutxitu Fisikoen Koordinakundearen azken azterlanen arabera, ez da inondik ere behar bezala betetzen ari. Elkarte horrek Mendillorriko irisgarritasunari buruz egin duen azterlanean agerian jarri dute badirela zoladura arazoak eta horren ondorioz sarbideak ez zaizkiela ondo egokitzen eraikin eta dendei eta arazo handiak daudela gurpil-aulkiak erabiltzeko eta abar.

Txostenaren beste atal batean nabarmentzen denez, "aipagarriak dira oztopo larriak daudela dendetan eta tabernetan sartzeko (IV, V eta VI: eranskinak, planoan azaltzen direnak). Komunitatean ez dago gurpil-aulkiarekin sartzetik, iturri publikoak ez daude gurpil-aulkian doazenentzako egokituta, ez dago komun publikorik, Mendillorriko hiri-garraioa -12. linea- ez dago egokituta".

Azkenik, ondorio gisa, ondokoak aipatzen dira txosten horretan:

- Etxegileek eta teknikari profesionalak gutxitan betetzen dute Arkitektura oztopoei buruzko foru legean xedatutakoa, nahiz eta auzune berria izan, ez dago seinale akustikorik ikusmen arazoak dituztenentzat eta hiri-garraioa linea bakarra egokitu gabe dago.

- Mendillorri buruz beste hainbat elkartek ere eman izan du bere iritzia. Nafarroako Gorren Elkarteak, esate baterako, zerbitzu publikoetan seinale akustikoak (alarma seinaleak, txirrinak, megafonia bidezko abisuak eta abar) eta entzumen arazoak dituztenentzako sistema duen telefono-kabina bat jartzeko eskatu du.

ANFASeK hiri-garraioa autobus lineak guztiak egokitzearen eskatu du, eta uste du, autobus geltokia identifikatu ahal izateko, markesinetako zoladurak zein seinaltatzeko zutoinek bestelakoak

izan beharko luketela, eta seinaltatzeko zutoinen zenbakiak erliebean egin beharko lirartekeela, geltoki bakoitzean zer linea har daitekeen jakin ahal izateko.

ONCEk, besteak beste, hiri altzariak zintarriarekin lerrokatuta egon daitezela eskatu du, oinezkoen pasabideak eta autobusaren geltokiak hartzen duen tokia errespetatuz, bai eta oinezkoentzako pasabideetako, autobus geltokietako eta eskaileretako zoruaren testura bestelakoa izan dadin ere. Orobat eskatzen du segurtasun xafak edo hesiak jar daitezela obretako, lubakietako zein lurreko zuloak babestearren, eta zaborrontziak erraz aurkitzeko moduko toki jakin batean jar daitezela.

Azkenik, ASPACEk taberna eta dendetan sartzeko arrapalak -eskubanda eta guzti- jar daitezela, lurraren pareko igogailuak -ateak irekitzeko sistema geldoa eta botoiak bi altueratan dituztenak- eta postontziak eserita dauden altueran egon daitezela.

Azterketa labur horren ondorioz, erraz ikus daiteke ez dela behar bezala betetzen Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak xedatutakoa.

Nafarroako Gobernuak abian jarri du Sarrigurengo urbanizazio berria egiteko administrazio prozedura, eta hortaz, une aproposa da Mendillorri orain dela gutxi minusbaliatuei eragindako arazoak konpontzeko.

Halaber, guztion ongizatea areagotu nahi da -herriarrei eraikin berrien eta toki publikoen erabilerari eta irisgarritasunari errazteko beharrezkoak diren baliabideak ezarri-, eta arian-arian kendu nahi dira eguneroko bizitzan dauden oztopo fisiko eta zentzumenezkoak.

Horregatik guztiagatik aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du sei hilabeteko epean plan bat aurkezteko Nafarroako Gobernuaren eraikinak, zerbitzuak eta instalazioak Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak xedatutakoari egokitzearren.

2.- Nafarroako Parlamentuak plan bat prestatu du, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera, Nafarroako Udal eta Kontzejuen arauak Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak xedatutakoari egokitzearren eta proiektuak kontrolatu eta foru legeari egokitzearren. Horretarako, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak emanen ditu, Nafarroako

roako udal eta kontzejuek foru legea bete ahal izan dezaten.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sarrigurengo urbanizazio berrian komunikazio eta garraioen, lokalen, eraikinen eta espazioen diseinua, exekuzioa eta erabilera arau ditzan, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak xedatutakoarekin bat etorritz. Proiektuek behar adina neurri jasoko dute minusbaliotasunen bat dutenek garraioak, lokalak, eraikinak eta espazioak erabili eta eskuragarri izan ditzaten.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoen Departamentuarteko Batzordea dei dezan, lehen aipatutako lanei ekin diezaien, foru legearen betearazpena bultzatuz dezan, foru legea bete behar duten pertsona zein entitateei aholku eman diezaien, gai horretan gertatu diren aurrerapen teknikoak azter ditzan eta foru legearen edukia berrikus dezan, onetsi zenetik hamabi urte iragan eta gero aplikatzen den eta zer eragin-garritasun duen egiaztatzeko.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 10ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oihan Plana betearazteko neurriak har ditzan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oihan Plana betearazteko neurriak har ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean eztabaida dadin.

Abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeak Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeko lege araubidea ezarri zuen.

Lege horretako hirugarren xedapen gehigarriak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Parlamentuan Nafarroako Oihan Plana aurkeztu dezan, jendaurrean jarri ondotik eta legearen helburu eta printzipioei jarraikiz.

Legegileak Nafarroako Oihan Plana eskatzeko zituen arrazoiak oihan ondarea babestu eta garatzeko legearen zioen azalpenean jasotzen dira. Hona:

"Nafarroak mota ezberdineko lurraldeak ditu, izan ere ehun kilometrotan Espainia osoko eremuan kantauriar kostaldetik hegoekialdeko lehorralderaino aurki ditzakegun landare klase eta ekosistemak baitaude bertan; horrexegatik, are eta beharrezkoagoa da foru lege honetan seinaltutako helburu abstraktuak aniztasun horri egokitutako lurralde plangintza batetan gauzatzea".

Horrenbestez, Oihan Plana, batetik, mendiarekin lotutako giza jarduera produktiboak eta bestelako jarduerak sektoreen arabera planifikatzeko tresna da, eta, bestetik, oihanarekin lotutako baliabide naturalak antolatzeke tresna; izan ere oihana ekosistema bizi eta dinamikoa da, gizakiak zentzuz erabil dezakeena eta babestu, zaindu, hobetu eta hurrengo belaunaldiei transmititu behar diena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Oihan Plana (1998-2007) onetsi zuen. Oihan Planaren beharra aski justifikatuta badago ere, funtsezko arazoia da Nafarroako mendiek lurralde osoaren % 55 hartzen dutela, eta, hortaz, ondare handia

den aldetik, beharrezkoa da hori arautu eta zaintzea. Ezin dugu ahaztu Nafarroako mendiak zaindu eta garatu beharreko biodibertsitatearen erreserba direla.

Oihan Planaren helburu behinenak ondokoak dira: natur ingurunea zaintzea, arboladiak handitzea sustatzea, mendien aprobetxamendua arautzea eta basoak leheneratzeko egin beharreko lanak kualifikatzea.

Legeak helburu sozioekonomikoak ere baditu, hala nola lehen transformazioko jarduerak sustatzea, basoen ikerkuntza sustatzea eta basoa aisiarako eremu gisa arautzea.

Hori guztia dela-eta, urteotan hainbat kontusail sortu da Oihan Planean onetsitako neurri guztiak betetzeko.

Hortaz, Oihan Planaren jarraipena eta kontrola egin eta etengabe egin behar du lan Nafarroako Gobernuak Oihan Plana garatzeko. Gure taldeak eginiko galdera bati Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak eman zion erantzuna arreta handiz irakurrita, garbi dago, Oihan Planeako hainbat proposamen dela-eta, ez dagoela modurik plana garatu eta exekutatzeko Nafarroako Parlamentuak onetsitako modu eta epeetan. Bada, Nafarroako Oihan Planaren

garapena eta exekuzioa hainbat arinen gauza dadin aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamenari:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean, Nafarroako Oihan Plana betearaztearen, ondokoak aurkez ditzan:

a.- Lege-multzo berri bat; hartan jasoko dira: Nafarroako mendiak direla-eta toki administrazioaren esparruan gertatu diren aldaketak, mezenazgoa eta fundazioak, zergak eta pizgarriak mendien kudeaketaren arabera ezartzeko sistema berri bat, lurren dohaintzetarako zerga-arinketak.

b.- Oihan Museoa sortzeko proposamena, Nafarroako Oihan Planean azaltzen denari jarraikiz.

c.- Nafarroako oihan-pistei buruzko plan orokorra, Nafarroako Oihan Planean ezartzen denari jarraikiz.

d.- Iruñerrian oihan-hondakineterako energia-zentroa sortzeko beharrezkoa den bideragarritasun azterlana.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 9an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da musikako goi mailako ikasketak arautzeko foru lege proiektu bat egin dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da musikako goi mailako ikasketak arautzeko foru lege proiektu bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaida dadin.

LOGSEtik sortutako lege esparruaren arabera, musika ikasketak 2001-2002 ikasturtean ezarri behar dira. Ikasketa horiek beti egin dute tupust Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Nafarroan goi zikloa arautzeko izan dituen errezeloekin. Hezkuntzako zuzendari nagusi Santiago Arellano jaunak esandakoaren arabera, gai hori "hor dago, egiteko datarik gabe".

Musika ikasketak arautzeko borondate politikoa ezari gehitu egin behar zaio kontserbatorio berria egiteko obren auzi korapilotsua, zeren, antza denez, ezin izanen baitira egin bertan goi mailako ikasketak.

Gertaera hori gorabehera, argi dago 2001-2002 ikasturtean Pablo Sarasate Kontserbatorioak ez duela eskainiko goi zikloa, eta beraz, ikasle batzuek ezin izanen dituzte ikasketak Iruñean jarraitu, kaltetuei horrek sortzen dien kostua eta familia-kezka ahaztu gabe.

Pablo Sarasate Kontserbatorioko zuzendariaren esanetan, LOGSEko goi zikloa ez izateak atzera egitea dakar, ikastetxeak gaur egun 1966ko plan zaharreko goi zikloa eskaintzen baitu.

Goi zikloa ezartzeak ekar dezakeen beste arazo bat kostu ekonomikoa da; izan ere, irakasleek katedradun izan behar dute eta horrek gastu handia ekar diezaioke foru ogasunari. Arazo hori zerbitzu eginkizunen bidez konpon daiteke; ez da, ez, irtenbiderik onena, baina horri esker abian jar liteke goi zikloa.

Nafarroan musikako goi zikloa ezartzeko baliabide ekonomikorik ez dagoela da Nafarroako Gobernuan hezkuntza eta kultura arloko ardura dutenek darabilten beste argudio bat. Garbi dago helburua erdiesteko adina kontusail sortzen dela horretarako borondate politikoa dagoenean –hor dira, NUPeko titulazio berriak eta unibertsitate bereko kirol instalazioak hobetzeko saioak–.

Arduradun horien arabera, irtenbidea beken politika hobetetik etorriko da, eta hartara, musika ikasi nahi duten nafarrek hala egin ahalko dute, baina hori bai, gure mugetatik kanpo, nahiz eta

Nafarroan lasai asko egiteko modua izan. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearen ustez, irtenbide hori eskasa eta atzerakoa da.

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, bestalde, Pablo Sarasate Kontserbatorioaren egoera negargarriaz jabetzeko aukera izan du, baina Nafarroako Gobernuak ez du ganorazko arrazoirik eman instalazio horiek zergatik hobetzen ez dituen adierazteko. Presakoa da irtenbide bat bilatzea musikaren irakaskuntzak Nafarroan bizi duen egoerari. Nafarroako Parlamentuak behin baino gehiagotan hartu izan ditu horren inguruko erabakiak, eta halatan, erabaki proposamen bat onetsi zuen orain urte batzuk, Pablo Sarasateko instalazioak hobetzeko beste inora eramane zitezela.

Nafarroan ez dago musika eskolei buruzko arau-esparru garbi eta nahikorik horiek beren lana egin dezaten. Udalen musika eskolen egoera ekonomikoa ez da ona, Nafarroako aurrekontu orokorretan ematen zaien dirua ez delako aski, eta, gainera, urteak dira izoztuta daudela.

Horregatik guztiagatik aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean LOGSEko musikako goi zikloaren garapena arautzen duen legegintza proiektu bat aurkez dezan Biltzar honetan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean Pablo Sarasate Kontserbatorioak espazioaren aldetik duen egoerari buruzko azterlana egin dezan, ikastetxean bertan egin beharreko hobekuntzak egiteko, edo, bestela, egungo kontserbatorioak espazioaren aldetik duen arazoari behin betiko irtenbidea eman eta beste inora eramateko.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean Nafarroako musika eskolak hobetu eta berrantolatzeko plana aurkez dezan, ekonomia eta lege aldetik zein egoeratan dauden argitzearren. Plan horrek, besteak beste, udalen musika eskolen gastuak ordaintzearen Nafarroako aurrekontu orokorren bidez egiten den finantzazioa nabarmen hobetzea ekarriko du.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 9an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoak ingurumenen duen eraginari buruzko azterlan bat egin dezan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoak ingurumenen duen eraginari buruzko azterlan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Askotariko Parlamentuko Taldeko parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka dadin:

Zioen Azalpena:

Bardeako natur baliabideak antolatzeke plana eta Nafarroako Errege Bardea natur parke deklaratzeko Foru Legea onetsi aurreko prozesuan, zenbait kolektibok iradokizunak eta alegazioak aurkeztu zituzten, eta haietako gehienak bazter utzi ziren. Hala eta guztiz ere, haietako batzuk jaso ziren. Horietako bat Bardeako Poligonoaren aurkako Asanbladak aurkeztua zen, eta haren zati bat onetsi zen; hain zuzen ere, Bardeako Batzarrek erabaki zuen onestea, Defentsa Ministerioaren eta Bardeako Batzarraren arteko kontratu indardunaren mugaeguna baino lehen, azterlan bat egin zedin Bardeako tiro poligonoak pertsonengan, landaredian, faunan, paisajearen eta abarretan izan duen eraginari buruz. Onespen hori gorabehera, Bardeako Batzarrek bi urte baino gehiago behar izan zituen azterlan horren klausulak eta edukiak onesteko.

Hori aipatu zuen Bardeako Komunitateko lehendakari Gayarre jaunak Nafarroako Parla-

mentuko lan bilera batean izandako agerraldian; hartan baietsi zuen "epe laburrean eraginei buruzko azterlan bat egiteko lehiaketa esleituko dela". Hala eta guztiz ere, Bardeako Komunitatearen Batzorde Iraunkorrak eta haren lehendakariak ez dute beren akordioa bete eta ez dute aipatu azterlana egin.

Bestalde, Nafarroako Parlamentuak berriki Errege Bardea parke natural izendatzeko foru legearen aldaketa bat onetsi du; haren bitartez, heldu den ekainaren 10etik aurrera Bardeako tiro poligonoak hartzen duen lurraldea parke naturalean sartuko da.

Bardeak "donuts" itxurako parke natural deklaratzeko ulertezina baldin bazen –tiro poligonoaren "zulo beltza" parketik kanpo geratu baitzen–, askoz ere ulertezinagoa da tiro poligonoak jarraitzea parke naturalaren zati denetik. Baina, beste ekimen batzuen bidez argitu beharreko gai horretaz gainera, guztiz beharrezkoa da ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlana irizpide objektiboekin egitea, gizakion osasunerako eta, oro har, ingurumenaren beraren onerako. Eta, noski, beharrezkoa da gutxienez ere azterlana egitea. Bardeako Komunitateak izan duen utzikeria dela eta, kontuan harturik Nafarroako Diputazioak herri ondareak zaintzeko duen behar subsidiarioa, nahiz eta ohiz kanpokoak izan orain aipatzen ari garenak, egokia dirudi Nafarroako Gobernuak berak enkargatzea Errege Bardeako Komunitateak enkargatzen ez duen ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlana. Hori oraindik ere argiago ikusten da kontuan hartzen badugu Nafarroak bere lurraldeko ingurumen arloko eskumenak dituela. Hori bera aski izanen litza-teke foru gobernuaren ekimenez aipatu azterlana egiteko.

Aurreko guztiari gehitu behar zaio sekula ez dela azalpen argi eta zehatzik eman tiro poligonoan tiro eta bonbardaketako praktika militarretan erabiltzen diren materialei buruz. Horrek eta gertaturiko istripuetan beti gorde den isiltasunak (ukituri-eremuak inguratu eta ez da baimenik eman jenderik edo kazetaririk sartzeko) halako ezinegon bat sorrarazi dute Bardeako tiro poligonoaren inguruko herrietako biztanleengan, hain zuzen ere Bardean probetan zehazki erabiltzen denari buruz. Ezinegon hori asko handitu da "Balkaneta-

ko sindromea" deiturikoaren ondorioz, nahiz kez-
kak bestelako jatorria izan.

Harrobi, asfalto planta edo paper industria bati,
esate baterako, ingurumenaren gaineko eraginari
buruzko azterlan bat egitea eskatzen zaie, eta
taberna huts bat industria kaltegarri eta gogaikarri
gisa hartzen bada, eta dagokion espedienteak iza-
pidetu behar badu, ez du logikoa ematen horren
osasungaitza den jarduerak batek, tiro eta bonbar-
daketaen praktika militarrek hain zuzen, bere era-
ginari buruzko inolako kontrol zibilik ez izatea.

Azken finean, hori guztia dela eta, bidezkoa da
—eta horregatik egiten dugu—Biltzarreko Osoko
Bilkurari eskatzea ondoko erabaki proposamena
onets dezan.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen da bi hila-
beteko epean enkargatu dezan Bardeako tiro poli-
gonoak ingurumenaren gaineko eraginari buruzko
azterlan integral bat. Azterlan horretan, lehentasu-
na emanen zaie erabilitako armen xehetasunei
eta osaketari, era guztietako isurketei eta haiek
gizakiongan, landaredian, faunan, lurrian, uretan,
airean eta paisajearen duten eraginari.

Azterlana osatuko da berez behar dituen alder-
di eta ezaugarriekin: eremuaren deskribapena,
ingurua, maniobrak, ibilbideak, eragin orokorrak,
ariskuak, egindako kalteak konpontzeko neurriak
eta abar.

Tuteran, 2001eko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Bardeako tiro poligonoaren erabilera militarren eta inguruetan bizi diren biztanleen osasunaren arteko erlazioa iker eta azter dadila eskatzen da

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra
andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa.
Horren bidez, Bardeako tiro poligonoaren erabile-
ra militarren eta inguruetan bizi diren biztanleen
osasunaren arteko erlazioa iker eta azter dadila
eskatzen da".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko
urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen
aurkeztutako mozioaren biderapena onestea,
Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean
argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta
bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamen-
duko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parla-
mentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenke-
tak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko
bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-
biak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Parlamentuko Askotariko Taldeko parlamentari
Milagros Rubio Salvatierrak honako mozio hau
aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta
bozka dadin:

Bardeako tiro poligonoaren erabilera militarra-
ren eta inguruetakoz biztanleen osasunaren arteko
balizko erlazioa ikertu eta aztertzeari buruzko
mozioa

Zioen azalpena:

"Balkanetako Sindromea" izenekoak kezka era-
giten ari da Bardeako tiro poligonotik hurbil dau-
den herrietan, poligono horren erabilera militarra-
ren eta inguruetakoz biztanleen osasunaren artean
egon litekeen erlazioa dela-eta. Kontua ez da has-
ten ezta bukatzen ere uranioaren erabilerekin;
kontuan izan beharrekoak dira, halaber, grafitozko
bonbak, oro har arma kimikoen erabilera, eta
berunaren erabilera soilak.

Defentsa Ministerioari Bardean arma uraniodu-
nak erabili ote diren galdetze hutsak ez ditu biz-
tanleak lasaituko. Berrogeita hamar urteotan tiro
poligonoan erabili izan diren armei buruzko infor-
mazio-eza dela eta, eginkizun militarretan aritzen
denari galdetzea ez da nahikoa. Eragin horiek
gertatu ote diren egiaztatu behar da.

Hori guztia dela-eta, honako proposamen hau
egin nahi diogu Osasun Batzordeari:

1.- Osasun Publikoaren Institutuaren eta
horrek egokitzen jotzen dituen erakundeekin bitartez

(ospitaleak, osasun- edo unibertsitate-arlokoak edo bestelakoak) ahalik azkarren prestatzea Estatuko beste eskualde batzuekin konparazioa egiteko azterlan bat, eta, bestalde, iker dadila Bardeako tiro poligonotik 50 bat kilometrora arteko distantzian dauden Nafarroako herrietako biztanleen artean zer nolako bilakaera izan duten giltzurruneko eritasunek, grafitoaren erabilerarekin, horiek bezalaxe lotura, izan lezaketen beste erita-

sun batzuek eta leuzemiak eta, oro har, minbiziek –bakoitza zehaztuz–.

2.- Azterlan hori prest egon bezain laster Osasun Batzordean aztertzea.

3.- Ikerketaren ondorioak eta nondik norakoak argitaratzea.

Tuteran, 2001eko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Errege Bardearen jabegoa berreskuratzea erabakitzen da

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Errege Bardearen jabegoa berreskuratzea erabakitzen da".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Parlamentuko Askotariko Taldeko parlamentari Milagros Rubiok, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroak Errege Bardearen edukitza berreskuratzearen aldeko mozioa:

Zioen azalpena:

Nafarroako Errege Bardea Nafarroako Koroaren ondare izan zen, eta Erregearen Patrimonia-lak administratzen zuen.

Erresumari emandako hainbat zerbitzu zirela-eta, Erregeek Nafarroako Errege Bardeako baz-

kalekuen aprobetxamendua (eta, askoz ere neurri apalagoan, beste aprobetxamendu batzuk, egurrarekin eta abarrekin zerikusia zeukatenak) eman ohi zieten bi haranetako, monasterio bateko eta Tuteran eta Tafallako merindadeetako herrietako biztanleei. 1705ean aprobetxamendurako eskubidea azkeneko aldiz eman ondoren, horrelako kontzesiorik gehiago ez emateko konpromisoa izan zen.

Nafarroako Errege Bardeako bazkalekuen aprobetxamenduak nola erabiltzen ziren kontrolatzeko ardura Nafarroako Gorteek zeukaten, eta, horren berri ematen da Novísima Recopilación delakoan eta ondorengo Gorteen Koadernoetan; beraz, bai konkistaren aurretik, bai ondoren.

Antzinako erregimena eta, harekin, ordura arte Nafarroak bereak zeuzkan erakundeak desagertu zirenean, Gorteek lehen egiten zuten fiskalizazioa Nafarroako Foru Diputazioak ez zuen egiten segitu, utzikieriatatik, eta erabilera-eskubidea aitortua zeukatenak bizi zireneko haran eta herriak berak euren kabuz arduratu ziren administrazioaz (ez da hori La Oliva-ko Monasterioaren kasua, Desamortizazioaren ondoren desagertu baitzen), eta, euren aginpidearen indarrez, aprobetxamendua ereite eta ehizara hedatu zuten, batetik, eta, bestetik, zimaur eta egur, kare, igeltsu eta harri-erazketako aprobetxamenduak handitu zituzten. Azkenaldi honetan, aprobetxamenduak hainbat plantazio eta aisialdi-jarduketatara hedatu dira, eta, halaber, lurraldearen zati baten "lagapen" bat dela-medio, tiro- eta bonbardaketa-praktikak egiten dituzte hegazkinek arlo horretako Ministerioak ezartzen duen moduan eta Ministerio horrek bere kabuz finkatzen duen ordainsari baten truke.

Alde batera utzirik Nafarroako biztanle eta agintarien irizpideak hainbat kontzepturi buruz, hala nola konkista, anxio edo bateratzea –noren aburuz–, edo 1.839ko urriaren 25eko nahiz 1.841eko abuztuaren 16ko legeei buruz, kontuan hartu behar da lehenak berariaz adierazten duela Nafarroako Foruak gorde eginen direla monarkia- ren batasun konstituzionalaren kalterik gabe, eta bigarrenak, batasun konstituzional horren alde eginiko aldaketen artean, ez duela Nafarroako ondarea uki dezakeen ezer xedatzen eta, Bardeari buruz egiten duen aipamen bakarrean, esaten duela ez dela inolako aldaketarik eginen ez Bardeako ez eta beste herrilurretako bazkalekuen erabilera eta gozameneari, Nafarroako legeetan eta bere herrietako pribilegioetan ezarritakoari jarraituz. Aipa dezagun, bidenabar, Jaime Ignacio del Burgok, lege horri eta Diputazioak gobernu zentralari bidalitako oinarriei buruzko iruzkina egitean –oinarri horietako bat gu aipatzen ari garena da, eta bere horretan jaso zuen legeak–, esaten duela testuaren adierazpidea eztaba daezina dela, baldintzak jartzen dituen norbaiti dagokiona, eta historiak erakusten zuela Nafarroak ez ohi zuela oinarririk gabeko baieztapenik egiten. Hau da, Lege Itundu delakoak ez zuela ezertan ukitzen Bardeako jabegoa, eta, beraz, Nafarroaren ondarekoa izaten segitzen zuela.

Gogoan izan behar da ezen, 1512 eta gero, Erregeek Bardea erabiltzeko eskubideak ematen zituztenean –halaxe gertatu zen aipaturiko kasuan, Felipe V. arekin– Nafarroako Errege ere ziren aldetik ematen zituztela.

“La Pepa” deritzon Konstituzioak –nahiz eta horren azterketa sakona egitea idazki honen helburua ez izan– gauza positibo asko ekarri zituen gizabanakoaren askatasunei dagokienez, baina, aztergai dugun kasuan, Nafarroa probintzia bihurtu zuen. Bestalde, Diputazioak utzikieriaz jokatu zuen bere eskubideei zegokienez, eta Bardearen gaineko kontrola egiteari utzi zion; hain zuzen ere, Bardeako gozamena zegokien biztanleen herri eta ibarrak horren ondorioz hasi ziren administrazioa euren kabuz egiten, lehen adierazi bezala. Ildo horretatik, aipatzekoa da Errege Bardeako lehen ordenantzen data: 1820.

Nafarroako Errege Bardeari buruzko hurrengo erreferentzia 1.973ko Foru Berrian, Estatuak emandako martxoaren 1eko 1/73 Legean, agertzen da; bertan, nortasuna aitortzen zaio ez Nafarroako Errege Bardearen Komunitateari, baizik eta hura ordezkatzeko duen organoari; alegia, Bardeako Batzarrari, eta ezartzen da Batzar hori bere Ordenantzek arautuko dutela.

Azkenaldi honetan, izugarrizko nahasmendua dago inguruko biztanleen eskubideei dagokienez; halaber, abeltzainek laborariak salatu izan dituzte, eta, zenbait kasutan, auzitegiataraino ere iritsi izan dira, gastu izugarriak eraginez. Behinola Nafarroako Gorteek bazkalekuen gozamenaren gauzatzeari zegokionez betetzen zuten eginkizunaren hutsunea nabaritzen da; baita Errege Kontseiluak eta Erregearen Patrimonialak betetzen zuten eginkizuna ere, beste arlo batzuetara hedatuz, ehiza kasu, eskubideak gaildi ez zitezen begiratzen baitzuten. Eginkizun hori Diputazioak egin beharko zukeen, eta, utzikieriatik, ez du egin.

Azaldutako guztia kontuan izanik, honako proposamen hauek aurkeztu ditut:

1.- Deklara bedi Nafarroako Foru Komunitatea Nafarroako Errege Bardea izenez ezaguturiko lurraldearen jabea dela. Lurralde hori zazpi nafar legoa da luze eta bost zabal, eta Tuterako Merindadean dago. Bere mugak hauexek dira: iparraldetik Tafallako Merindadea; Ekialdetik, Aragoi; Mendebalde eta Hegoaldetik, Tuterako Merindadearen gainerako lurraldeak. Aurreko guztia ulertuko da behinola honako herri hauetako biztanleei eman zitzaizkien eskubideen kalterik gabe: Tuterako, Corella, Arguedas, Valtierra, Fustiñana, Cabanillas, Cortes, Buñuel, Cadreita, Milagro, Villafranca, Martzilla, Funes, Azkoien, Faltzes, Caparroso, Santakara, Mérida, Zarrakastelu, Zaraitzu Ibarra, Erronkaribar eta La Oliva-ko Monasterioa.

2.- Aurrekoari jarraituz, Foru Diputazioak deklarazio hori berrets dezala eta, bere aginpidearen indarrez, edukitza berreskura dezala, galdua izan lezakeela jo litekeen kasurako.

3.- Halaber, lurralde hori Jabego Erregistroan Nafarroako Foru Komunitatearen izenean inskriba dadila eska dezala, legeek ezartzen dutena betez, eta karga gisa agertaraztea gozamena daukaten herri eta ibarretako biztanleei eta La Oliva-ko Monasterioari behinola emandako eskubideak.

4.- Gobernu zentralarekin negoziatzea Bardeako lurraldearen zati bat tiro eta bonbardaketa poligonorako erabiltzeko Bardeako Batzarrak sinaturiko kontratua –ez dago argi horretarako ahalmenik ote zuen– datorren ekainean amaitzen denean instalazio guztiak ken daitezen, helburu horrekin gehiago ez erabiltzeko.

5.- Gozamena daukatenekin negoziatuz, Diputazioak moderniza ditzala haiei eragiten dien Bardeako aprobetxamenduak, eta gainontzekoa arauzkotu dezala.

Tuteran, 2001eko urtarilaren 10ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebroko Ur Konfederazioak sustatutako “Pirinioko Itsasoa Garatzeko Estrategian” esku har dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebroko Ur Konfederazioak sustatutako “Pirinioko Itsasoa Garatzeko Estrategian” esku har dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurubiro Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko eledun Juan Cruz Alli Aranguren jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikularen babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean eztabaida dadin.

Egun, mendialdeek garapen aukera gehiago dituzte nekazaritzara emaniko ordokiek baino, nahiz eta azken horiek betidanik izan diren emankorrako eta berezituagoak. Adibide ugari ari da sortzen Europa guztian joera horren frogagarri. Konparazio batera, hor ditugu Saboia Garaia, Suitzako Tirol-a, Eskoziako Highlands-ak eta Kataluniako Pirinioa.

Esako urtegia Iruña eta Jacaren arteko korridorearen erdian dago. Bi erreferentzi gune oso garrantzitsu dira bi hiri horiek, eta nahitaezkoak gune horren garapena bultzatzeko, zeina oso ahula baita demografiaren eta herrien tamainaren aldetik. Hori horrela, eskualdez gaindiko estrategia da beharrezkoa, Aragoi eta Nafarroako autonomi administrazioek koordinatu beharreko estrategia, alegia.

Esa urtegiaren handitzeak zuzenean kaltetutako bederatzi herriek 1.600 biztanle egiten dute. Herri horietarik lau 100 biztanle baino gutxiagokoak dira, eta herri guztiak dira 500 biztanle baino gutxiagokoak. Urtegiaren handitzeak zuzenki kaltetuko ez dituen herriek, egia da, errentagarritasun handia atera ahalko diote handitzeari, eta egun baino itxaropen handiagoz begiratu ahalko diote etorkizunari.

Ekintza-ildo eta –proiektuak definitzean, nahi-taezkoa da udalez gaindiko ikuspegia erabiltzea. Horrela lortuko da, ez bestela, lurraldean behar adina eragin izan eta buelta ematea zenbait guneak duten gainbehera geroz eta handiagoari.

Aurten, dirudienez, handituko da Esako urtegia. Orain hilabete gutxi esleitu ziren obrak; kontratuaren prezioa 18.000 milioi baino gehiagokoa da. Elkargunea-CDN alderdiak beti uste izan du, bada, eskualderen batek “pairatu” behar dituenen lan publiko handi batek eragindako arazoak, konpentsazio-neurriak ezarri behar direla interes orokorrari begira; honako honetan ez da salbuespenik egin behar. Lan publiko horien eragina pairatzen duten eskualdeetarako planak ezarri behar dira, eta behar diren baliabideak jarri lan horiei ahalik eta errentagarritasun ekonomiko eta sozial handiena ateratzeko.

Elkargunea-CDN alderdiak behin baino gehiagotan (2000ko martxoan eta maiatzetan) eskatu ditu “Pirinioko Itsasoa” planaren dokumentuak; dokumentu horiek otsailean aurkeztu zituzten Nafarroako eta Aragoiko gobernuetako arduradunek eta Ebroko Ur Konfederaziokoek.

Kontseilariak erantzun zuen eskaturiko dokumentuak ez zeuzkala Ingurugiro Departamentuak, Ebroko Ur Konfederazioak baizik.

Gero, 2000ko azaroan, hurrengo galderak luzatu genizkion Ingurugiro kontseilariari:

– Zein urrats eman du orain arte Nafarroako Gobernuak, “Pirinioko Itsasoa” deituriko garapen plana egiteari dagokionez?

– Ukituriko Nafarroako udalekin bilerarik egin da haien laguntza eskatu eta planaren edukiari buruz duten iritzia jasotzeko?

– Bilerarik egin al da Ebroko Ur Konfederazioarekin eta Aragoiko Gobernuarekin “Pirinioko Itsasoari buruzko plana” abiarazteko?

– Gogoan izanik ezen, Ebroko Ur Konfederazioko lehendakariak jakinarazi zuen bezala, Esako urtegiko obrei 2001ean ekinen zaiela, “Pirinioko Itsasoari buruzko Plana” noizko abiarazi ahalgo dela uste du Nafarroako Gobernuak?

Oraingoan, Ingurugiro kontseilariaren erantzuna hau izan zen: “Pirinioko Itsasoa” plana egitea Ebroko Ur Konfederazioaren ardura da, hori baita, Ingurumen Ministerioaren pean, arro horretako organoa; beraz, foru administrazioak ez du dokumentu hori egiteko inongo ardurarik.

Erantzunaren ahulezia ikusita bai eta Nafarroako Gobernuaren esku hartze eza ere, nahita-ezkoa iruditzen zaigu kontuan izatea, Esako urtegiaren handitzean, kaltetutako gunen horretan garapen plan bat aurrera eramateko beharra; Nafarroako Gobernuak plan horretan esku hartu eta giza- eta ekonomia-baliabideak jarri behar lituzke. Horiek horrela, hurrengo erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aktiboki esku har dezan Ebroko Ur Konfederazioak sustatutako “Pirinioko Itsasorako Garapen Estrategia” izenekoaren presaketan, zeinean Aragoiko Gobernuak ere parte hartzen baitu. Esako urtegiaren handitzeak kaltetutako herriak ez ezik, planak kontuan izanzen ditu, baita ere, handitzearen eraginpeko eremuan egoz zuzeneko onura izan dezaketen herriak. Plana aurrera eramateko, proiektuarekin zerikusia duten administrazio guztiek egiten dituzte ekarpen ekonomikoak; horretan ikusiko da horien esku hartzea.

Garapen plan horrek hurrengo hobekuntzak jaso beharko ditu: errepide sarea, bai eta kultur ondarea, eskaintza turistikoa eta oinarritzko azpiegiturak ere; halaber, handitutako urtegiaren urarentzako jolas- eta kirol-erabilera ere jasoko du. Hori guztia egiten da ukitutako udalak entzunda eta horien parte-hartzearekin.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 11an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoaren inguruko eremuan gertatutako minbizi kasuei buruzko epidemiologia azterlan bat egin dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoaren inguruko eremuan gertatutako minbizi kasuei buruzko epidemiologia azterlan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko eledun Juan Cruz Alli Aranguren jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluen babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osasun Batzordean eztabaida dadin.

Iritzi publikoa kezkatuta dago, Nafarroakoa bereziki, "Balkanetako Sindromea" izenekoari buruz agertutako zenbait berriekin. Susmoa zabaldu da soldaduek leuzemia eta minbizia izateak zerikusia duela uranio pobretuarekin kontaktuan egotearekin.

Ziurgabetasun hori oso azkar zabaldu da Nafarroan; izan ere, jakin da NATOk beharbada uranio pobretudun misilak probatu dituela Bardeako tiro poligonoan, Balkanak bonbardatu aurretik. Informazio horri gehitu behar zaio Energia Atomikoko Ministerioko iturriek gai horri buruz eginiko balorazio teknikoak; horren arabera, uranio pobretu eta txikitua toxikoa da gizakion osasunarentzako.

Italiako Gobernuak munizio horiek behin behineko ez erabiltzea eskatu du, seguru jakin arte ez dutela inongo arriskurik, ez soldaduentzako, ez bertako biztanleentzako.

Eskandalu honen aitzinean, NATOk erabaki du ekintza plan bat egitea; horren elementurik azpimarragarriena da aditu talde bat sortu dutela uranio pobretuaren jarraipena egiteko. Lan talde horren zeregina hau izanen da: alde batetik, arazo praktikoak identifikatzea, eta, bestetik, kaltetutako eskualdeetako garbiketa-lanekin zerikusia duten operazioak egitea.

Espainiako Gobernuaren Defentsa Ministerioak dena gezurtatu badu ere, hori ez da nahikoa izan kontu honi buruzko ziurtasun gabezia gutxitzeko. Egia da ez dela erreza informazio nahikoa eta beharrezkoa ematea, eta, aldi berean, herritarrek beharrik gabe ez asaldatzea; hala ere, oraingo honetan, informazioa berandu heldu da eta baldintza txarretan.

Aragoiko Gobernuak, errealitate horren aitzinean, Nafarroako Gobernuak izan ez duen arintasunez jokatu du. Hemen, beti bezala, gobernu zentralari jarraitu dioguitsu-itsuan, eta haren ahotsaren oihartzuna izan gara gai honetan. Zenbait parlamentu ekimenek erakusten dute Nafarroako herritarrek kezkatuta daudela eta Nafarroako Gobernuak ekimen ahalmen gutxi erakutsi duela.

Egoera honek Errege Bardearen inguruko biztanleak asaldatzen ahal ditu; kontuan izan behar dugu tiro poligono horretan maniobra militarrek egin zirela Gologoko Gerraren garaian eta Balkanetakoan, eta entrenamendu gune gisa ere erabili izan zela.

Nafarroako Gobernuak esan du tiro poligonoaren inguruko herrietan minbizi adierazleak ez dira ohiz kanpokoak, eta, oraingoz, ez dela azterlan berezirik eginen dudak uxatzeko.

Aragoiko Erkidegoan azterlan bat egiten hasi dira tiro poligonoarekin muga egiten duten herrietan minbiziak izaniko bilakaerari buruz. Horrela, duda-izpi guztiak uxatu eta herritarrek lasaitu nahi dira, azterlan argi, sendo eta duda oro uxatuko dituen bat eginez. Nafarroan, antzeko azterlan bat egin beharko lukete aditu zibilek, ikuspegi tekniko eta garbi bat oinarri hartuta, denok lasaitzeko modukoa.

Hori dela-eta aurkeztu dugu hurrengo erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aditu zibilen talde batek epidemiologia azterlan bat egin dezan, non aztertuko baitira Bardeako tiro poligonoaren inguruan izaniko minbiziaren arrazoiak, bilakaera eta horiek zerikusirik izan dezakeen uranio pobretuarekin edo grafitozko bonbekin. Azterlan horiek gozamenaren duten herriei buruzkoak izan beharko dute, bai eta horien inguruko herriei buruzkoak ere.

2.- Nafarroako Parlamentuak Defentsa Ministerioa premiatzen du Bardeako tiro poligonoa garbitzeko sistema bat ezar dezan; hain zuzen ere, entrenatzeko edo probak egiteko uranio pobretuzko edo grafitozko bonbak erabili dituzten gunak garbitzeko.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 12an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, inmigrazio gaietan PPko Gobernua aplikatzen ari den politikaren zeharo aurka dagoela adierazten du Nafarroako Parlamentuak

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, inmigrazio gaietan PPko Gobernua aplikatzen ari den politikaren zeharo aurka dagoela adierazten du Nafarroako Parlamentuak".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra Nafarroako Ezker Batua, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Alderdi Popularraren Gobernu zentralak Espainiako etorkinen eskubideak murriztu eta ukatzean oinarrituriko politikarekin erantzun izan dio inmigrazioaren arazoari. Espainian atzerritarrek dituzten betebeharrak eta eskubideei buruzko 4/2000 Lege Organikoaren erreforma adostu gabeak egoera ez-erregularrean zeuden etorkinen eskubideak errotik murriztea ekarri zuen eta, horren ondo-

rioz, aipatutako gizataldearen egoera dramatikoa da, babes juridiko ezak bide ematen baitu, besteak beste, esplotazio ekonomiko larria jasan dezaten.

Horrez gain, Aznar jaunaren Gobernuak erabaki du isilaraztea gustatzen ez zaizkion ahotsak edo haren inmigrazio-politiken ondorioak eta gehiegikeriak salatze moduan daudenak. Horren adibidea da Gobernuak "Inmigrazioaren Foroa" izeneko desegiteko asmoa duela. Gobernuaren aholku organo hori 1995ean sortu zen Europar Parlamentuak eta Herriaren Defendatzailerak eskatuta; administrazio zentralaren, autonomikoaren eta udal administrazioaren ordezkariak, sindikatuak, GKEek eta enpresaburuen eta etorkinen elkarteak osatzen dute.

Inmigrazioaren Forotik egindako kritikak eta ausnarketak onartzen jakin beharrean, Alderdi Popularrak paretik kentzea erabaki du, formula hau erabiliz: gizarte zibilaren ordezkari gehienek parte-hartzea baztertu eta Gobernu zentralak izendatutako kideek erabateko gehiengo osatzea.

Etorkinen gaian PPk politika gogortu duela erakusten duen beste adibide larri bat Atzerritarren eta Inmigratzailearen Gobernu ordezkariaren adierazpenak dira, Ekuadorreko langile asko eta asko (150.000 inguru) kanporatzea proposatzen zuelako, Gobernuak hegaldiaren kostua ordainduta. Proposamen horrek ez dabil oso urruti Europar Batasuneko herrialdeetan eskuin muturrak proposatzen duenetik: kanporatze masiboak, oinarritzko eskubideak murriztu eta ukatzea...

Ildo honetan, Ekuadorreko langileen egoera zail hori koxka bat estuagotu zuen PPren Gobernuak, joan zen abuztuan, EAOn Espainiaren eta Ekuadorren arteko 1964ko hizarmenaren aldaketa argitaratu zuenean, aldaketa horren bitartez nabarmen gogortu baitziren Ekuadorreko herritarren egoera erregularizatzeko betebeharrak, eta aldi berean, langile horiei eskubide sozialak onartzeko muga zorrotzak ezarri.

Finean, hainbat erabaki ikusirik, begi bistan dago PPren Gobernuaren hautua ez dela gure herrialdeko langile etorkinen integrazioa jotzea, baizik eta zigorrak, zehapenak, kanporaketak eta oinarritzko eskubideak murriztu eta ukatzea ardatz dituen politika egitea.

Horregatik guztiagatik, IUN-NEB Parlamentuko Taldeak aurkeztu du honako erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak adierazten du Alderdi Popularraren Gobernuak inmigrazioaren gaian aplikatzen ari den politikaren zeharo aurka dagoe-la, langile etorkinen integrazioa lortzeko bidean ez duelako aurrera egiten eta, gainera, zigorretan, zehapenetan, kanporaketetan eta funtsezko eskubideak murriztu eta ukatzean oinarritzen delako.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 15ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foruzaingoaren antolaketa eta eginkizunei buruzko planaren betetze maila azterdezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foruzaingoaren antolaketa eta eginkizunei buruzko planaren betetze maila azterdezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko eledun Juan Cruz Alli Aranguren jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Lehen-

dakaritza eta Barne Batzordean eztabaida izan dadin:

1992an, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu zuen Nafarroako Foruzaingoaren antolaketa eta eginkizunei buruzko plan zuzendari bat egin zezan, honako helburu hauek erdiesteko:

- Foruzaingoaren gaur egungo egoera eginkizunen ikuspegitik definitzea.

- Nafarroarako polizia-eredu bat definitzea.

- Foruzaingoak bereganatu behar dituen eginkizunak ezartzea eta beste polizia-kidego batzuekin zein harreman izanen dituen zehaztea.

- Eginkizun horiez arduratzeko zer giza eta gauza-baliabide behar diren antzematea.

- Foruzaingoari esleituriko eginkizunak betetzeko beharrezkoa den antolaketa proposatzea.

- Foruzaingoa mantendu eta garatzearen kostu ekonomikoa kalkulatzeko.

- Aipaturiko plana garatzeko ekintzak noiz egingen diren ezartzea.

Plan horren denbora-muga 2000rainokoa zen, eta, errealitate bihur zedin, hainbat programa edo planen bitartez geroago garatuz osatu behar zen.

Plana onetsi zenean, Foruzaingoak zenbait arazo zeuzkan, hala nola egitura organikoaren eta aginte-egituraren garapenari zegozkion batzuk, lokal egokirik eza (Foruzaingoaren bitarteko material guztiak gaizki zaintzen ziren, eta, beraz, kalteak izaten ari ziren), ordainsarien sistema eta abar.

Gauza nabaria da puntu horietako batzuetan aurrerapenak egin direla, baina ez planak ezartzen zuen azkartasunaz. Areago oraindik, esan daiteke planak ezartzen zituen hainbat afera garrantzitsu ez direla bete. Azter ditzagun:

1.- Estatuko segurtasun indar eta kidegoen eginkizunetatik bereizteari dagokionez, Estatuarekin ez da aurrerapenik izan bereizketa hori egiteko akordioetan. Akordio horietan jaso beharko zen zer ekintza-mota dagokien eskusiboki Estatuko segurtasun indarrei eta zein Foruzaingoari, eta komunikazio eta lankidetzarako zer bide diren sortu beharrekoak.

2.- Koordinaziorako bideak garatzea. Segurtasun Batzordeak ez du ia bilerarik egiten, eta ez ditu Foruzaingoaren plan zuzendariaren helburuak betetzen.

3.- Antolaketa-egituraren garapena. Ez da gaur egungo administrazio-karrera baino orekatuagorik garatu, eta gaur egungo ordainsarien sistema ere ez da berrikusi.

4.- Ez da behar bezala garatu aginte-egitura eta ez dira sortu inspektorearen eta inspektoreordearen figurak.

5.- Nafarroako Gobernuaren Segurtasun Eskola: bertan foruzainak eta udaltzainak, salbamendurako eta suteak itzaltzeko langileak eta babes zibileko langileak prestatzen dira, eta talde bakoitzaren baitako barne-sustapena ere egiten da. Beste erkidego batzuetako eskolen eginkizuna autonomietako polizien eta udaltzainen prestakuntza, birtziklatze eta espezializazioaz arduratzea da. Poliziaren Eskolara bisitan joate hutsa nahikoa da zein egoeratan dagoen ikusteko: hesiak botata eta herdoilduta, klaseetarako eta praktikeetarako baldintza txarrak eta abar. Horrek kalte egiten die prestatzen ari diren ikasleen osperari, bai eta polizia-kidego bakoitzaren prestaketan parte hartzen duten erakundeentzari ere.

6.- Beste eskualde batzuetan hedatzea. Tuterako kuartela alde batera utziz, afera honetan ez dago berri gehiagorik, nahiz eta planak ezarri

zuen toki entitateekin lankidetzan aritzea (lankidetzara hori hutsaren hurrengoa da) eta beste eskualde batzuetan hedatzeari buruzko azterlanak egitea.

7. Instalazioak. Planak ezartzen zuen Iruñean instalazio zentral berriak eraikiko zirela, zeinak planean taxuturiko eginkizunen eta plantillen garapenerako egokiak izanen baitziren. Onespena eta gero, ez da horren inolako berririk izan. Puntu honetan, inprobisazioa nabarmena da, eta karamila franko ekartzen dizkie kaltetu guztiei.

8. Finantza bideen garapena. Planean ezartzen zen negoziazioak egingen zirela Estatuarekin, Foruzaingoaren kostua beste autonomi erkidego batzuek erabiltzen duten sistemaren antzeko baten bidez kalkulatzeko. Ez da horri buruzko ezein berririk izan.

Egiazta daitekeen bezala, planaren betetze-maila ez da inondik ere nahikoa, eta horrek motibazioa galarazten du polizia-kidegoan, Foruzaingoako lan-baldintzak hobetzeari dagokionez Administrazioak agertu duen utzikeriaren ondorioz. Errealitate horri gehitu beharrekoa da Kontuen Ganbararen txosten bat, 1999ko abuztukoak. Bertan, Nafarroako Gobernuak bete beharreko gomendio batzuk egin ziren, baina, oraindik ere, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza eta Barne Departamentuak horietako gehienak ez ditu bete.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau egin dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foruzaingoaren antolaketa eta eginkizunei buruzko planaren betetze-maila azter dezan, plan horrek ezarri zituen eta gaur egun bete gabe dauden neurriak urtebeteko epean exekutatzeko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtebeteko epean Foruzaingoari buruzko plan zuzendari berri bat egin dezan Nafarroako Foruzaingoa garatu eta bere eskumenak eraginkorki erabiltzen dituela bermatzeko. Plan horretan, beste neurri batzuen artean, jaso beharko da Estatuko beste segurtasun indar eta kidego batzuekin eskumenak mugatzeko hitzarmen bat, Foruzaingoa kidego moderno eta eraginkorra izan dadin.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 15ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoaren inguruko herrietako minbizi kasuen kopuruari buruzko azterlanak egin ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoaren inguruko herrietako minbizi kasuen kopuruari buruzko azterlanak egin ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Errege Bardeako tiro poligonoko praktikek

osasunarengan duten eraginari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Zioen Azalpena

Balkanetako armamentuan uranio pobretua erabili dela egiaztatu ondoren, eta Bardeako poligonoan erabili daitekeen berria zabaldu denez, osagai horren eraginpeko pertsonen osasunean eta baita beste batzuen ere egin ditzakeen kalteei buruzko txostenak ikusita, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Tumore eta gaixotasun hematologikoen erregistroa erabiliz, behar diren azterlanak egitea Bardeako tiro poligonotik hurbil dauden biztanleengan minbizi mota ezberdinek duten eragina egiaztatzeke eta behar diren neurriak hartzeko.

2. Nafarroako Osasun Zerbitzuak behar diren baliabideak jartzea Balkanetan egon diren soldadu nafarrei eta gobernu kanpoko erakundeetako laguntzaileei arreta integrala eskaintzeko.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 16an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeari buruzko informazio zentro bat sordez

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeari buruzko informazio zentro bat sordez".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Zioen azalpena

2000ko ekainaren 29ko 2000/418/EB Erabakiaren bitartez, Europako Batzordeak entzefalopatia espongiforme kutsagarriekin (EEK) lotura duten arrisku materialen erabilera arautu zuen; Europan sartzen diren produktuen albaitaritza kontrolak aipatu zituen.

Abenduaren 22ko 3454/2000 Errege Dekretuaren bitartez, nazioko gobernuak animalien EEKak zaindu eta kontrolatzeko programa integral koordinatua ezarri eta arautu zuen.

2000ko abenduaren 26an, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean entzefalopatia espongiforme kutsagarriari aurrea hartzeko 2001eko jarduketa plana onetsi zuen.

Arazoak hartu duen tamaina ikusita, eta Nafarroan hartu beharreko neurriak osatzeko, ondoko mozioa aurkeztu du:

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Argibideetarako lurralde zentro bat sortzea, kontsumitzaileek, abeltzainek eta BEEaren eragina jasan duela uste duen edozein sektorek hartara jo ahal izan dezaten.

2. BEEari buruzko jarraipen-mahai bat sortzea, aditu batzuek osatua. Mahai horrek harremanetan jarriko ditu ukituriko sektore guztiak.

3. Informazio kanpaina zabal bat egitea, Nafarroako Gobernuaren eskura dauden baliabide guztiak erabiliz (zabalkundeko liburuxkak, gutu-nontzietan informazio orriak sartzeko, egunkarietan iragarkiak jartzea eta abar), zenbait arlotatik emaniko informazio kontrajarriak sortu duen alarma arintzeko.

4. Material arriskutsuak (MA), animalien gorpuak eta animalien hondakinetatik eginiko irinak errausteko behar diren izapideak egitea.

5. Abeltzaintza ustiategi guztietako animalia hilak jaso eta lekuz aldatzeko gastu guztiak Nafarroako Gobernuak bere gain hartzea.

6. Osasun Publikoaren Institutuko zaintza epidemiologikoko programen barruan EEKak zaintzeko programa berariazkoak sartzeko, eta bai maila epidemiologikoan, bai maila klinikoan koordinatzaile bat izendatzea.

7. EEK baten susmo klinikoa izanik, hildakoei nekropsiak egiteko behar diren neurriak hartzea.

8. Behar diren neurriak hartzea animaliak elikatze irinak erraustu bitartean biltegitratzeko. Ez dago bermaturik irin horiek zaborte batean pilatuta elikadura-katera pasatzea saihesten denik.

9. Tonatan eta labore-motatan zenbatestea animaliak elikatze irinak erraustu bitartean proteina-labore alternatiboak, horri ekiteko benetan behar den diru-kopurua aurrekontuetan jaso ahal izateko.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 16an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero-indarkeriaren aurkako plan integral bat presta dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero-indarkeriaren aurkako plan integral bat presta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio bat aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin, Nafarroako Gobernua premiatzen duena emakumeen aurkako bortizkeriari aurre egiteko plan integral bat egin dezan.

Zioen azalpena

Gizartea aurrera badoa ere, tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeei buruzko datuek, bai eta senarrak edo lagunak hildakoei buruzkoek ere beren horretan dira: ikara emateko modukoak dira; herritar guztiok ikutzen gaituen arazo horren aurrean behar-beharrezkoa da administrazioen erantzun tinkoa.

Emakumeen aurkako bortizkeriaren arazoari ez zaio irtenbidea emanen aholkularitza juridiko soilarekin, ikuspegi integraletik baizik, eta horri begira gazteen heziketak funtsezko papera bete behar du tratatu txarren prebentzioan: emakumeen kontrako bortizkeria onartezintzat jotzen duten eta elkarren artean berdintasunezko harremanak erakitzeke gai diren gizon-emakumeen belaunaldiak sortzea da helburua.

Egun, adituen iritziz, badira adierazle batzuk bortizkeria agertarazten lagundu dezaketenak, hala nola, oso gaztetan ezkontzea, autonomia ekonomikorik ez izatea, nor bere ekintzen erantzule ez sentitzea eta ez izatea, edo ingurunearekiko bakartzea.

Badira, bestalde, beste zantzu batzuk, etorkizunean tratatu txarrak eman ditzakeena salatzen dutenak: erantzun agresiboa bazter utzia sentitzearen aurrean edo autoestima eskasa dela-eta, "beti besteen hutsak ordaintzen duena" moduko usteak norberak ez onartzea, edo emakumeak bikote harremanean duen paperaren inguruko pentsamoldea, gehienetan papera tradizionala.

Gure iritziz, bortizkeria desagertarazteko plan integral batek alderdi hauek hartu beharko lituzke:

Arlo juridikoan, kautelazko neurriak ezarri behar dira: erasotzailea urruntzea; segurtasun indarrentzat jarraibideak prestatzea bortizkeria kasuetan segurtasuna eta isilpekotasuna babes ditzaten, eta halaber, prestakuntza berezia ematea gai honen inguruan tratatu txarren kasuetan esku hartzen duten agente guztientzat; familia bitartekaritzako programak garatu behar dira.

Komunikabideen arloan neurriak sustatu behar dira prentsako tratamendua alda dadin, hizkeran eta publizitatean estereotipo sexistak baztertuz, emakumeen kontrako bortizkeria arbuiatzeko kanpainak eginez, biktimen erabilera morbosoa alde batera utziz edo publizitate kanpainak eginez, tolerantziarik batere ez izateko gizartean.

Hezkuntzaren arloan, prestakuntza eman behar zaie irakasleei aukera berdintasunaren gaietan, eta garrantzi berezia eman emakumeen kontrako bortizkeriaren inguruko edukiei, zeharka sar daitezen hezkuntzaren alderdi guztietan; era berean, gatazkei irtenbidea bilatzen prestatzea, irtenbide ez-bortizak ematen ikasteko.

Bestelako neurriak, adibidez, emakumeen kontrako bortizkeria kasuak antzeman eta tratatzeko lan sare bat sortzea, administrazioak dituen baliabideak ahal denik eta hobekien erabiltzetik hasita, egiazko sare integral bihurtu arte hobetzen joateko.

Horregatik guztiagatik, Parlamentuko Talde Sozialistak aurkeztu du honako erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeen kontrako bortizkeria

desagertarazteko plan integral bat, aipatutako alderdiak, besteak beste, agertzen dituen, bi hilabeteko epean igor dezan Parlamentura.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 17an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza sistema ezar dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza sistema ezar dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako familiei interneterako konexioa daukaten ordenagailuak erosten laguntzeko sistema bat ezar dezan.

Zioen azalpena

Nafarroak, XXI. mendean, aukera-kopuru paregabea dauka, baldin eta garapen teknologikoa herritarren zerbitzuan jartzen badugu. Baina, aldi berean, "jakintzaren gizartea" delakoaren agerpenak desberdintasuna eta bazterketa areagotzearen arriskua dakarkigu.

Jakintzaren gizartearen baitako jardura politikak errealitate berria onartu behar du, aurrerapen zientifiko orok dauzkan alderdi egiazki positiboak bereganatuz eta ondorio negatiboak saihestuz edo ahal den neurrian murriztuz. Hala ere, teknologia eta jakintza berriak guztien eskura jartzean gauzatu behar da lehentasunezko politika publikoa.

Garrantzi berezia eman behar zaio teknologia berri horiek hezkuntzaren etapa guztietan (eskola-tik unibertsitatera arte) ikasi eta erabiltzeko, eta baliabiderik eza jakintza bereganatzeko oztopo inoiz ez izatea ere bermatu behar da.

Nafarroako 2001eko aurrekontu orokorretan, Nafarroako Alderdi Sozialistaren ekimenez aurkezturiko zuzenketa bat onetsi zen; horren bitartez, 150 milioi pezeta bideratuko dira internetera konektaturiko ordenagailuak erosten familiei laguntzeko. Laguntza hori dela medio, gizarte aberats, bidezko, anitz eta tolerantzia eraikitzeak aukerak ugaritu nahi dira, egiazko Nafarroa birtual baterantz bidea indartuz.

Esparru honetan prestigiorik handiena duen azterlan estatistikoko (Estudio General de Medios: interneteko audientzia, AIMCK egina) datuen arabera, Nafarroan 2000n Internetera sartu diren herritarren 14 urte edo gehiago dauzkaten nafar herritarren %13,8 dira. Azken urte honetan erabiltzaile-kopurua bikoiztu den arren, internetek beste autonomi erkidego batzuetan duen hedadurari buruzko datuek eta internetera euren etxetik pertsonen erdiak baizik ez direla sartzen jakiteak pentsarazten digute beharrezkoa dela Gobernuak ekimen bat abiaraztea internet guztien eskura euren etxetan jartzeko; horretarako, hainbat eragileren lankidetzak bilatu behar da, finantza-entitateena eta merkatariena kasu, eta betiere bermatu beharrekoak lirateke ekipoen, banatzaileen, finantzaketa-sistemaren, internetera sartzeko sistema-

ren, zerbitzu-hornitzailearen, softwarearen eta internetera konektatzeko behar den konfigurazioaren hautapen librea. Elementu horiek guztiak nahitaezkoak dira interneteko konexiorako.

Araubideak esplizitua eta zehatza izan behar du, eta laguntzen xedearen arabera argiro garatu behar ditu euren izaera, onuradunak, epeak, gutxieneko ezaugarri teknikoak, zenbatekoak, merkatarien eta finantza-entitateen parte-hartzea eta ekimena gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren guztiak.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du familiei ordenagailuak erosten eta internetera konektatzen laguntzeko neurri-multzoko bat ezar dezan hilabeteko epean, zeinak 2001eko urtarrilaren 1erainoko atzeraeragina izan baitu.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 18an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi eroen gaitza deitutakoari buruz kontsumitzaileei informazioa emateko kanpaina bat abian jar dezan

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herriarrok Parlamentuko Taldeak ondo-ko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi eroen gaitza deitutakoari buruz kontsumitzaileei informazioa emateko kanpaina bat abian jar dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalgo dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herriarrok Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean hainbat arinen eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan urtarrilaren 22an, Nafarroako iparraldeko bi ustiategitan "behi eroen" ustezko bi kasu antzeman direla iragarri zuen Nekazaritza kontseilariak.

Antza denez, bada, Nafarroan ere pairatuko dugu Europa osoan gertatzen ari den arazoa, baina

hemengoa are larriagoa da, zeren ustezko bi kasu horiek Pirinioko bertako arrazakoak baitira, eta arraza hori Nafarroako behi-aziendetan eta Nafarroako aratxea deituran zabalduenetakoa baita.

Berriak areagotu egin du kontsumitzaileek eta sektoreak berak bizi duten kezka, eta horrek eragina du noski kontsumo azturetan. Horrela, bada, aberengandik gaixotasuna kontrolatzeko neurriak zorrozteaz gain, beharrezkoa da bultzatzea politika arduratsuak, bi oinarri izan behar dituztenak: gardentasuna eta herritar guztiek zein ganaduzaleek errealitatea ezagutzea.

Horrenbestez, beharrezkoa da kontsumitzaileak –eta gizarteak oro har– iritzi bat osatzeko adina datu izan dezan, egoera korapilatsu honetan egoki iritzitako moduan jokatu ahal izateko. Herriarren artean ezertan laguntzen ez duen alarmerik sor ez dadin aurkeztu du Euskal Herriarrok Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du al bait lasterren kontsumitzaile nafarrei zuzendutako informazio kanpaina bat abian jar dezan, Nafarroan "behi eroen" ustezko bi kasu antzeman izanak sortutako egoerari buruz, abian jarri diren arretazko neurriei buruz eta osasunerako inolako arriskurik izan gabe jarraitzen ahal diren kontsumo azturei buruz informatzeko.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 23an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru legea alda dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru legea alda dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko eledun Juan Cruz Alli Aranguren jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean eztabaida dadin:

Animalia basatiek 2000n hamalau istripu eragin zituzten Nafarroako Foru Komunitatean, eta urte horretan bertan zenbait aldiz egin zuten “topo” gidariek eta animalia basatiek. Zorionez, orain arte ez da hildakorik izan, baina erakarritako kalte ekonomikoak gero eta handiagoak dira. Ingurugiro Departamentuan 61 espediente izapidatu ziren Ingurugiro Departamentuan partikularrei eta ehiza-barrutiei kalteordainak emateko. Horiei gehitu beharrekoak dira kalteak milioi erdi pezeta baino handiagoak izateagatik Ondare Departamentuari igorritako beste zazpi.

Ikus daitekeenez, azken urteotan ehiza larriko espezieek eragindako istripu-kopurua balio normalak baino askoz ere handiagoa da. Hainbat eskualde jendez hustea edo animalia harraparien desagerpena nahikoak dira espezie horien eta haiek eragindako kalteen hazkuntza ulertzeko.

Arazoa, baina, honetan datza: trafiko-isuri aipagarria jasaten duten errepideetan istripu-arriskua arbuigarria izateko, espezie zinegetikoen dentsitateak ia haien desagerpeneraino murriztu beharko lirateke. Bestalde, gaur egungo legediak ezartzen du ehiza aprobetxamenduak administrazio eskudunak onetsitako plan baten arabera izatea; hau da, barrutietan ehizatzen dute ehizatu ahal dutena.

Gaur egungo foru legediak ehiztariak eta euren barrutiak egiten ditu nekazaritzari sorturiko kalteen eta ehiza-animalien ondoriozko trafiko-istripuek eragindako kalteen erantzule.

Nafarroan, basa animaliek eragindako istripuen ondoriozko erantzukizuna barrutiaren ehiza-kudeaketa esleitu daukanari egoztekoa da; gehienetan, tokian tokiko ehiztarien elkarteei (balain eta istripua ehiza-barrutietan gertatu eta istripua eragin duen espeziaren aprobetxamendua kasuan kasuko ehiza antolatzeke planean arautua badago). Egoera hori Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen ondoriozkoa da.

Joan den azaroan, Nafarroako Gobernuak 1086/2000 Foru Agindua onetsi zuen; hura dela medio, Ingurugiro Departamentuak laguntza ekonomikoak eman ahalko dizkie ehiza barrutietako ehiza aprobetxamenduetako titularrei, horren xede izanik, soil-soilik, euren barrutietako ehiza-espezieek errepide-istripuetan ibilgailuei eragindako –eta inolako aseguru-motak estali gabeko– kalteen ordainei aurre egitea.

Neurri horrek ez ditu Nafarroako ehiztariak inondik inora ere asebate. Batetik, barrutiek aseguru ez izatea ekar dezake, gauza jakina izan baita Nafarroako Gobernuak horien izenean erantzunen duela. Bestalde, Nafarroako barrutietako arduradunei sortzen zaizkien arazoetarako (alegia, aseguru bat izateko arazorako –barruti batzuetan ia ezinezkoa baita– eta beren karguaren ondoriozko erantzukizunei aurre egiteko arazorako) ez du irtenbiderik ekartzen.

Bestalde, 1997an Nafarroako Parlamentuak ehizaren plan estrategikoa onetsi zuen, eta esparru horretan zeresana zeukatenek plan hori presatzen lagundu eta parte hartu zuten. Aipatu planak, Nafarroako ehizaren plan estrategikoko

ekintzei eta neurriei buruz aritzean, ezartzen zuen, 3.1.1. ekintzan, beharrezkoa zela 2/93 Foru Legeko 31.4, 57.4 eta 57.5 artikulua aldatzea, Foru Administrazioari egozteko basa espezie guztiek, ehizakoek barne, sortzen dituzten kalteak, salbu eta ehiza espezieek nekazaritzan eragiten dituztenak.

Egia da ehizaren plan estrategikoaren betetze-maila oso apala dela, halako neurrian non Ingurugiro kontseilariak, Parlamentuan emandako erantzun batean, hauxe aitortu baitzuen: “ez da 2/1993 Foru Legearen inolako aldaketa edo garapenik egin aipaturiko artikuluei dagokienez, hain zuzen ere, Natura 2000 Sarea garatu ahal izateko behar adinako esparrua ahalbidetuko duen legedi berri baten barnean kokatu behar baita ehizaren arloko legedia...”

Egoera hori onarturik, gure iritziz lehentasunezkoa da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legearen aldaketa puntual bat egitea, barrutien eta bertako arduradunen erantzukizunaren arazoa konpontzeko.

Nafarroako Ehiztarien Elkartek (ADECANAK, hain zuzen) ehizaren plan estrategikoa aplikatu dezala eskatu dio Nafarroako Gobernuari; bereziki, basa faunak eragindako kalteen erantzukizuna Nafarroako Gobernuari bideratzen dioten neurriei dagokienez.

Bestalde, istripu horiek gutxiagotzeko beste hautabiderik ere ez da aztertu. Badaude kalteak saihesteko irtenbide teknikoak: beldurtzeko edo

uxatzeko seinaleak, artzain elektrikoak, hesiak eta ehiza-faunarentzako igarobide egokiak. Errepideak dauden bitartean, arazoak ere egonen dira, errepideak ez direlako diseinatu faunaren joan-etorriei laguntzeko. Horrela, bada, basa faunaren eragina konpondu edo murrizteko irudimen handiko irtenbide eta alternatibak proposatu behar dira.

Horregatik, gure ustez, istripuak gertatzen direneko zonetan datuak bildu behar dira, eta, geroago, errepideetatik fauna igarotzeak eragiten dituen istripuak eta arazoak minimizatzeko fauna-igarobi-deak egitea aztertu behar da.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu da:

1.- Nafarroako Parlamentuak premiatzen du hiru hilabeteko epean Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legearen aldaketa bat aurkez dadin, basa espezie guztiek, ehizakoak barne, eragindako kalteen erantzukizuna Foru Administrazioari egozteko. Kasu horretan, Foru Administrazioa ehiza-espezieek nekazaritzari eragindako kalteen erantzukizunaz salbuetsi beharko da.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du basa faunak eragindako trafiko-istripuen kokalekuari buruzko azterlan bati ekin diezaion hiru hilabeteko epean, eta ehiza-faunarentzat nahiz ehizakoa ez denarentzat igarobide bereziak egiteko aukera gogoan har dezan.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 23an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ardien “scrapie” izeneko gaitzari buruzko informazio kanpaina bat egin dezan

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA MENDI BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ardien “scrapie” izeneko gaitzari buruzko informazio kanpaina bat egin dezan”. Mozio hau Osoko Bilkuran izapidetu behar zen,

eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2000ko irailaren 5eko 68 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruña-Jaka-Huesca autobaien trazadura Irunberrin barna egin dadin

HERRILAN ETA AZPIEGITURAK BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruña-Jaka-Huesca autobaien trazadura Irunberrin barna egin dadin”. Mozio hau Osoko Bilkuran izapidetu behar zen, eta Herrilan

eta Azpiegiturak Batzordean izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2000ko urriaren 2ko 77 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Larrako natur erreserban eskian aritzeari buruzko azterlanak egin ditzan

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Larrako natur erreserban eskian aritzeari buruzko azterlanak egin ditzan”. Mozio hau Osoko Bilkuran izapidetu behar zen, eta Lurralde-

aren Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2000ko urriaren 31ko 88 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da batzorde bat era dezan, hezkuntz etapetan hainbat ikasgairen irakaskuntza aztertzeko

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da batzorde bat era dezan, hezkuntz etapetan hainbat ikasgairen irakaskuntza aztertzeko". Mozio hau Osoko Bilkuran izapidetu behar zen,

eta Hezkuntza eta Kultura Batzordean izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2000ko urriaren 31ko 88 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexua dela-eta lanean diskriminaziorik egiten ez dela ikuskatzeko programa baten garapena susta dezan

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexua dela-eta lanean diskriminaziorik egiten ez dela ikuskatzeko programa baten garapena susta dezan". Mozio hau Osoko Bilkuran izapide-

tu behar zen, eta Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2000ko azaroaren 6ko 91 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza sisteman etorkinen beharrei erantzuna emateko arau-proiektu bat aurkez dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza sisteman etorkinen beharrei erantzuna emateko arau-proiektu bat aurkez dezan". Mozio hau Osoko Bilkuran izapidetu

behar zen, eta Hezkuntza eta Kultura Batzordean izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2000ko azaroaren 27ko 104 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Irakeko herriaren egoerari buruzko adierazpen politikoa

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2000ko abenduaren 18an egindako bilkuran, hurrengo adierazpena onetsi zuen:

Lehena. Elkarbizitzaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2000ko abenduaren 11n eginiko bilkuraren ondoren igorritako erabaki proposamena onestea. Hona haren testua:

“1go. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Iraki ezarritako enbargoa eta zehapen ekonomikoak presaz eta berehala deusezta daitezela, Irakeko herriari kalte oso larriak eragin baitizkio.

2gn. Parlamentu honek mundu osoan giza eskubideak etengabe defendatu eta balio demo-

kratikoak bultzatu nahi baititu, Irakeko diktadura-erregimena deitoratzen duela adierazten du, eta erregimen politiko demokratiko baterako bilakaera azkarra gerta dadin bultzatzen du.

3gn. Adierazpen hau igortzea Nazio Batzuen idazkari nagusiari, Irakek Espainian duen Enbaxadara, Espainiako Kanpo Arazoetarako Ministeriora eta Sodepazera.”

Bigarren. Adierazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko abenduaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoa 2001eko urtarrilaren 29an

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikulua plantilla organikoa eta Biltzarren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda urtero onetsi behar dela xedatzen du.

Hori horrela, ERABAKITZEN DA:

1go. Nafarroako Parlamentuak 2001eko urtarrilaren 29an duen plantilla organikoa onestea.

2gn. Plantilla organikoa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

a) Funtzionarioak:

	Kopurua	Maila	Izendapen askea	Esklu- sibitatea	Batera- ezintasuna	Lanpostua	Mailako Osagarria
IDAZKARITZA NAGUSIA							
Legelari nagusia	1	A	X	55		75	
Mahaiko eta Eledunen							
Batzarreko idazkaria							
Administrazioko burua	1	C	X			41,68	12
Administraria	1	C				31,68	12
ZERBITZU JURIDIKOAK							
Legelariak	4	A		55		34	
ZERBITZU OROKORRAK							
Administrazioko teknikari burua	1	B		55		15	
Teknikari diplomatua	1	B		55		5	
Informatikako teknikaria	1	A			35	4	
Informatikako teknikaria	1	B			35	5	
Administrariak (*)	5	C				31,68	12
Ofizial teknikaria	1	C		55		6	12
Gelazain nagusia							
Gelazain nagusia	1	D				32	15
Gelazainak	10	D				22	15
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA							
Prentsako burua	1	A		55		44	
Itzultzaileak	5	A		55		4	
Administraria (*)	1	C				31,68	12
Transkriptoreak (*)	6	C				31,68	12
Protokolo Burutza							
Administrazioko burua	1	C				41,68	12

	Kopurua	Maila	Izendapen askea	Esklusibitatea	Batera-ezintasuna	Lanpostua	Mailako Osagarria
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA							
Artxibo eta Liburutegiko burua	1	A		55		14	
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	5	
Administraria (*)	1	C				31,68	12
KONTU-HARTZAIETZA ETA EKONOMI GAIETARAKO ZERB.							
Kontu-hartzailezako burua	1	B		55		30	
Administrazio Kudeaketako teknikaria	1	B			35	5	
Administrariak	2	C				31,68	12

b) Aldi baterako langileak.

Kopurua	Lanpostua	Izendapen askea
1	Lehendakaritzako Kabinete burua	X
1	Lehendakaritzako idazkaria	X
1	Bestelako hautetsien idazkaria	X

(*) Administrari 1 euskarazko tituluarekin.

(*) Transkriptore 1 euskarazko tituluarekin.

(*) Administraria euskarazko tituluarekin.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2000ko abenduaren 31n

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1go. 2000ko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan ziren funtzionarioen zerrenda onestea.

2gn. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostuak	Administrazio egoera
IDAZKARITZA NAGUSIA				
DÍEZ LAGO, P.	A	5	Legelari nagusia	Jardunean
Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritza				
ALFARO ERVITI, C.	C	6	Administrazioko burua	Jardunean
LASECA ESCUER, J.R.	C	4	Administraria	Jardunean
ZERBITZU JURIDIKOAK				
BERMEJO GARDE, M.	A	5	Legelaria	Zerb. Bereziak
PULIDO QUECEDO, M.F.	A	4	Legelaria	Zerb. Bereziak
LANPOSTU HUTSA	A		Legelaria	

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostuak	Administrazio egoera
ZERBITZU OROKORRAK				
CERRO PAÚL, F. J. DEL	B	6	Zerb. Orokorrretako burua	Jardunean
LARRAÑETA LIZARRONDO, M. V.	B	7	Teknikari diplomatua	Jardunean
LOYOLA ERASO, P.	A	3	Informatikako teknikaria	Jardunean
ARANAZ JIMÉNEZ, E.	B	1	Informatikako teknikaria	Jardunean
ARDAIZ EGÜÉS, A.	C	4	Administraria	Zerb. Bereziak
BEAR SANZ, C.	C	3	Administraria	Jardunean
DÍAZ DE RADA TURUMBAY, J.C.	C	6	Administraria	Jardunean
MIGUÉLIZ GARCÉS, I.	C	3	Administraria *	Jardunean
LANPOSTU HUTSA	C		Administraria	
EQUIZA MAQUIRRIÁIN, J. M.	C	4	Ofizial teknikaria	Jardunean
Gelazain nagusia				
ANSORENA URRIZA, A.	D	4	Gelazain nagusia	Jardunean
ADOT LOPERENA, M.A.	D	3	Gelazaina	Jardunean
ARIZCUREN REY, M. Á.	D	4	Gelazaina	Jardunean
CARLOS RAMÍREZ, J. M.	D	4	Gelazaina	Jardunean
ENECOIZ SEGURA, F.	D	2	Gelazaina	Jardunean
MARTÍNEZ ORDUÑA, M. J.	D	3	Gelazaina	Jardunean
MONEO MARTÍNEZ, M.I.	D	3	Gelazaina	Jardunean
TORRES IBARROLA, J. M.	D	4	Gelazaina	Jardunean
URMENETA MARÍN, O.	D	3	Gelazaina	Jardunean
VENTURA ARBILLA, A.I.	D	4	Gelazaina	Jardunean
FADRIQUE GARDE, I.	D	5	Gelazaina	Jardunean
PRENTSA, ARGITALPEN				
ETA PROTOKOLO ZERBITZUA				
GIL MARTÍNEZ, C. J.	A	4	Prentsako burua	Jardunean
ARANA BAREÑO, A.	A	1	Itzultzailea	Jardunean
ARISTEGUIETA OQUIÑENA, X.	A	1	Itzultzailea	Jardunean
ETXEBARRIA ARIZNABARRETA, M.	A	3	Itzultzailea	Jardunean
IRIARTE CILVETI, M.	A	2	Itzultzailea	Jardunean
IRIZAR APAOLAZA, A.	A	1	Itzultzailea	Jardunean
ARMENDÁRIZ SENBEROIZ, B.	C	4	Administraria *	Jardunean
ARANAZ MARTÍ, C.	C	3	Transkriptorea	Jardunean
HUARTE CAMPIÓN, A. I.	C	4	Transkriptorea	Jardunean
PALMA ROMERO, F.	C	4	Transkriptorea	Jardunean
SÁENZ GARCÍA, M. C.	C	3	Transkriptorea	Zerb. Bereziak
SANTIAGO SEGOVIA, I. DE	C	3	Transkriptorea *	Jardunean
Protokolo Burutza				
HUALDE ARBIZU, N.	C	7	Administrazioko burua	Jardunean
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA				
DOKUMENTAZIO ZERBITZUA				
FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J.	A	5	Artxibo eta Liburutegiko burua	Jardunean
ITURRI VILLANUEVA, A	B	1	Liburutegiko laguntzailea	Jardunean
			eta dokumentalista	
MITXELENA ENBIL, I. A.	C	3	Administraria *	Jardunean
KONTU-HARTZAILETZA ETA				
EKONOMI GAIETARAKO ZERB.				
ZULET RECALDE, F.	B	4	Kontu-hartzaitetzako burua	Jardunean
FERNÁNDEZ GELOS, M. V.	C	4	Administraria	Jardunean
PÉREZ DE RADA ARISTEGUI, M. E	C	6	Administraria	Jardunean

(*) Lanpostua euskarazko tituluarekin.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	---